

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO EKAINA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %3,0ko hazkunde-tasa izan du 2006ko ekainean

Urteko lehenengo sei hilabeteetako hazkundera %4,5ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko ekainaren aldean %3,0 hazi da 2006ko ekainean. Urteko lehenengo sei hilabeteetako hazkundera %4,5ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean.

2006ko ekainean, eta 2006ko maiatzaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %0,6 hazi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: Eustat

Sektoreen arabeko bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko ekaineko indizearen bilakaerak (2005eko ekainaren aldean) gehikuntzak izan ditu ia sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak %8,0 gehitu dira, energia %1,5, tarteko ondasunak %1,3 eta kontsumo-ondasunak %0,1; izan ere, azken hauen

gehikuntza kontsumo-ondasun ez iraunkorren (%1,0) gehikuntzaren ondorioz eman da. Aitzitik, kontsumo-ondasun iraunkorrak %1,7 gutxitu dira.

2006ko ekaineko hilabete arteko aldakuntzek (2006ko maiatzaren aldean) zeinu ezberdina izan dute industriako sektoreetan. Energia %4,3 gehitu da hil artean, ekipamenduko ondasunak %1,4 gehitu dira aurreko hilabetearen aldean, tarteko ondasunak %0,1; baina kontsumo-ondasunak %0,4 gutxitu dira maiatzaren aldean, kontsumo-ondasun iraunkorrak gutxitu egin direlako (-%1,9) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak gehitu egin direlako (%0,3).

Lurralde Historikoen arabeko bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %5,4 gehitu da indizea, Bizkaian %2,0 eta Araban %0,8.

2006ko maiatzetik ekainera bitarteko tasak Gipuzkoan (%1,6) eta Araban (%1,6) gehitu egin dira baina Bizkaian %0,8 gutxitu..

Taula: 2006ko Ekaina. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Eka06/Eka05	At/At-1 (1)	Eka06/Mai06	Mai06/Api06
Indize orokorra: Euskal AE	3,0	4,5	0,6	2,8
Araba	0,8	3,3	1,6	2,9
Bizkaia	2,0	5,3	-0,8	3,2
Gipuzkoa	5,4	4,3	1,6	2,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	0,1	0,3	-0,4	3,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-1,7	0,7	-1,9	2,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,0	0,1	0,3	3,5
Ekipo-ondasunak	8,0	8,3	1,4	4,2
Bitarteko ondasunak	1,3	1,3	0,1	1,0
Energia	1,5	14,1	4,3	4,2

(1) t urteko urtariletik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>